

Progresio Harmonikoa

GARAI KLASIKOKO KONPOSITOREEK
NOLA AUKERATZEN ZUTEN **AKORDEEN**
ORDENA? **NOLANAHI** JARTZEN ZITUZTEN?



EGIA ESAN, BADAUDE **SARRIAGO** AZALTZEN DIREN PROGRESIO BATZUK ETA, BESTALDE,
AHAL DEN NEURRIAN EKIDITEN DIRENAK. KONPOSITOREEK AUKEKAKETA EGITERAKOAN
GUSTOKO SOINUA BAZUEN EDO EZ IKUSTEN ZUTEN ARREN TEORIALARIEK **PATROI** BATZUK
AURKITU AHAL IZAN DITUZTE, **FUNTZIONATZEN DUENA** ETA **EZ DUENA** SAILKATUZ.

PATROI HAUEK BILATU ETA AZTERTZEKO **OINARRI-NOTEN MUGIMENDUA** IZAN GENEZAKE KONTUAN.
AKORDE BATEKO ETA HURRENGOAREN OINARRI-NOTEN BITARTEA KONTUAN IZANDA, **MOTARIK GABE**;
BITARTEAREN **TAMAINA** ETA **NORABIDEA** BAKARRIK.

ADIBIDE HONETAN **OINARRI-NOTEN** MUGIMENDUA
AZTERTZEN DUGU (EZ **BAXUARENA!**) ETA **BITARTEA**
ARGITU.



LA-TIK SI-RA ZAZPIDUN BAT DAGO
BEHERANTZ, ETA ALDERANTZIKATUZ
BIDUN BAT IZANGO ZEN GORANTZ.

HORI KONTUAN IZANDA, HONA HEMEN PATROIA:
GARAI KLASIKOAN OHIKOAK ZIREN **GORANZKO**
BIDUN MUGIMENDUAK, **BEHERANZKO HIRUDUNAK**
ETA **BEHERANZKO BOSTUNAK!**



EZ DU ESAN NAHI EZ ZUTELA
INOIZ BESTELAKO MUGIMENDURIK
ERABILTZEN, BAINA EZ ZIREN
HORREN OHIKOAK.

GOGORATU...

BITARTEAREN **MOTAK**
AXOLA EZ DUENEZ EZ IZAN
KONTUAN **ALTERAZIOAK**.



IZAN ERE, AKORDE SEKUENTZIA HORIEK
ITSUSIAGOAK KONTSIDERATZEN ZIREN.

ADIBIDEZ, **SOL-EN AKORDETIK**
MI-RENERA HIRUDUN BAT JAIZTEN DA;
BAITA **SOL-ETIK MI BEMOLERA** EDOTA
SOL SOSTENITUTIK MI BEMOLERA!



"**ITSUSIAGOA**"
ONDORENGOA ESATEKO
MODU ELEGANTE BAT DA:
"**KONPOSITOREEK EZ**
ZUTEN EGITEN, BERAZ,
ZUK ERE EZ ZENUKE
EGIN BEHARKO!"



ETA NOSKI, PATROI HONEK BERE SALBUESPENAK DITU. LAU:



EDOZEIN AKORDETIK
JOAN GAITEZKE TONIKARA,



TONIKATIK EDOZEIN
AKORDERA JOAN GAITEZKE,



EDOZEIN AKORDETIK JOAN
GAITEZKE DOMINANTERA,



ETA SENTSIBLEAREN AKORDETIK
TONIKARA JOAN BEHAR GARA.



C: ii

JAR DEZAGUN
IKASITAKOAK
MARTXAN...
DEMAGUN
SUPERTONIKAREN
AKORDETIK ABIATU
BEHAR GARELA ETA
HURRENGOA ZEIN
DEN ERABAKI.

ONDO EGONGO LITZAKE
BIDUN BAT IGOTZEA
MEDIANTERA...



iii

EDO HIRUDUN
BAT JAIZTEA
SENTSIBLERA...



vii^{o6}

EDO, BAITA, **BOSTUN BAT**
JAITZI DOMINANTERA
HELTZEKO...



V

AZKENIK, SALBUEZPEN
ERE ERABIL ZENEZAKE
ETA **TONIKARA** JOAN!



I